

## 77. EUSKAL SOZIOMETROA (2022ko ekaina) Prensa oharra

### SARRERA

77. Euskal Soziometroa 2022ko bigarrena da. Bertan biltzen dira herritarrek egoerari buruz dituzten pertzepzioak eta euren jarrera eta balio politikoak.

Landa lana 2022ko ekainaren 6tik 10era bitartean egin zen.

### EGOERAREN BALORAZIOA

#### Egoera ekonomikoaren pertzepzioa pandemia aurreko mailara itzuli da

Euskadiko egoera politikoaren balorazio positiboa egiten dute biztanleek; % 66k uste dute ona edo oso ona dela. Halaber, egoera ekonomikoari buruz egiten den balorazioa positiboa da. Hala, % 69k uste dute Euskadiren egoera ekonomikoa ona edo oso ona dela. Aldiz, gehienek uste dute Espainiako egoera politikoak eta ekonomikoa txarrak edo oso txarrak direla (% 74k eta % 72k, hurrenez hurren).

Gainera, herritarren % 72k diote euren egoera ekonomikoa ona edo oso ona dela. Haatik, biztanleen herenak hilabete bukaerara iristeko arazoak ditu (% 7k arazo handiak eta % 26k nolabaiteko arazoak), % 67k arazorik ez dutela dioten bitartean. Hilabete bukaerara iristeko zailtasunak dituztenen portzentajea egonkor mantentzen da 2020tik gaurdaino.

Gainera, biztanleen % 65ek diote euren egungo lan egoera ona edo oso ona dela, iazkoa baino portzentaje pixka bat baxuagoa (% 71) eta 2019an, pandemiaren aurretik, egindako balorazioaren oso antzekoa.

**Euskadiko arazo nagusiei** dagokienez, gizartearen lehenengo kezka iturria berriz ere lan-merkatuarekin lotutako arazoetan kokatzen da. Biztanleriaren % 55ek aipatzen du hiru arazo nagusietako bat bezala. Nabarmenezkoa da otsaileko azken datuarekiko 10 puntu jaitsi dela.

Bigarrenik, distantzia handira bada ere, arazo ekonomikoak (% 23), osasun-arretarekin, Osakidetzarekin eta, oro har, osasungintzarekin lotutakoak (% 19) eta egoera politikoak, politikariak eta gatazka politikoarekin (% 15) lotutako arazoak kokatu dira. Arazo ekonomikoen aipamenak gora egin du otsailarekin konparatuta, % 15 ziren.

Arazo horien atzetik etorriko lirateke etxebizitza eta etxegabetzeak (% 11) eta, delinkuentzia eta herritarren segurtasunik eza (% 11).

EAEko herritarren % 36k uste dute euren herri edo hiria bizitzeko leku guztiz segurua dela eta beste % 53k gehienbat segurua dela.

### JARRERA ETA BALIO POLITIKOAK

#### Buruzagi politikoaren balorazioa zertxobait igo da

**Begikotasun politikoei** dagokienez, EAJ da herritarren artean begikotasun handiena sortzen duen alderdia, 5,3 punturekin 0tik 10erako eskalan. Ondoren, PSE-EE (4,6), EHBildu (4,2), Elkarrekin Podemos (3,8), PP (1,6), eta, azkenik, Vox (0,7) daude. Azken hori izan ezik, mantentzen baita, alderdi guztiek irabazi dute sinpatia apur bat otsailarekin alderatuz.

Buruzagi politikoei dagokienez, baloraziorik altuena Iñigo Urkullu Lehendakariari dagokio, 5,6 puntu lortu baititu 0tik 10erako eskalan. Bigarrenik, Maddalen Iriarte ere ontzat eman dute herritarrek, 5,5 punturekin. Ondoren datoz Miren Gorrotxategi (4,8), Eneko Andueza (4,3), Amaia Martinez (2,4), eta, azkenik, Carlos Iturgaiz (2,1). Buruzagi politikoaren balorazioak pixka bat igo dira otsailarekin alderatuta, Eneko Andueza eta Amaia Martinezen kasuak salbu, horienak zertxobait jaitsi egin baitira.

Hiriburuetako alkateei dagokienez, balorazioak honakoak dira: Gorka Urtaran (4,2), Eneko Goia (5,4) eta Juan María Aburto (5,6). Hiru lurraldeetako Diputatu Nagusiak ontzat jo dituzte herritarrek: Unai Rementeria (5,3), Ramiro González (5,2) eta Markel Olano (5,1).

Inkestatuei galdetu zaie Euskadin hainbat gizarte taldeen artean eskubide eta aukeretan dauden ezberdintasunei buruz. Ezberdintasunik handienak pertsona aberats eta pobreen artean antzematen dira (% 83k uste dute oso edo nahikoa handiak direla). Ondoren, bertoko eta atzerriko immigranteen artean (% 68), unibertsitate ikasketak dituztenen eta ez dituztenen artean (% 61) eta, helduen eta gazteen artean (% 60). Jarraian datoz euskaraz dakitenen eta ez dakitenen arteko ezberdintasunak (% 53), gizonen eta emakumeen artekoak (% 53), adinekoen eta gainerakoen artekoak (% 51) eta, hirietan eta herri txikietan bizi direnen artekoak (% 41). Ezberdintasunik txikiena bertan jaiotako eta Estatutako gainerako tokietan jaiotako artean hautematen da (% 27).

Herritarren % 43 “soilik euskal herritar” edo “euskal herritar, espainiar baino gehiago” sentitzen dira, % 41 “euskal herritar bezain espainiar”, eta soilik % 9 “espainiarra euskal herritarra baino gehiago” edo “bakarrik espainiarra”.

Euskadiko biztanleen % 22 independentziaren alde daude, % 33 independentziaren alde edo kontra leudeke egoeraren arabera, eta % 40 aurka daude. Iritzi horiek ia ez dira aldatu 2021ekoekin alderatuta.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 3.333 lagunek osatua da. Elkarriketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa  $\pm\%$  1,7koa da EAE osorako, % 95,5eko konfiantza mailarako,  $p=q=0,5$  izanik. Informazio bilketa 2022ko ekainaren 6tik 10era egin zen.

**OHARRA:** Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

<http://www.euskadi.eus/ikerketa-soziologikoak>

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 24a